

MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN. 2020KO OTSAILA


Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako salmentak % 3,2 igo dira 2020ko otsailean

Aurreko hilaren aldean % 1,7 hazi dira

Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kateetako salmentak % 3,2 igo dira 2020ko otsailean urte batetik bestera, prezio konstanteetan, lan-egutegiaren termino homogeneousetan, Eustatek landutako datuen arabera. 2020ko urtarrileko datuekin alderatuta, salmentek % 1,7 egin dute gora, urtaroen eragina kendurik.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa.

(%)



Elikagaien salmentek azalera handietan eta elikadura-kate handietan % 4,0ko igoera erakusten dute, eta gainerako artikuluei dagozkienek % 1,6ko igoera izan dute aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, egutegiaren ondorioak atera ondoren.

Lurraldeka, guztietan izan da igoerarik: Araban, % 0,7; Gipuzkoan, % 9,3; eta Bizkaian, % 0,3, iazko hilabete bereko datuekin alderatuta. Hori guztia prezio konstanteetan eta egutegi-efektuetatik zuzenduta.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2020ko urtarrila, elikadura-salmentak % 2,1 igo dira prezio konstanteetan eta urtaroen eraginik gabe, eta gainerako produktuenak, berriz, % 0,8.

2020ko urtarrileko eta otsaileko metatutan, Merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmenta-indizea % 1,1 hazi da, elikaduran gertatzen den

hazkundearen ondorioz (% 2,1ekoa), zeren gainerako produktuetan % 0,5eko beherakada erregistratu baita. Hala ere, positiboa da hiru lurraldeen bilakaera: Arabak % 0,4 egin du gora urteko metatutan, Bizkaia % 0,2 eta Gipuzkoa % 3,2, hori guztia prezio konstanteetan eta lan-egutegiaren termino homogeneoetan.

Euskal AEko azalera handietan eta elikadura-kate handietan enplegatutako langileen kopurua % 2,0 handitu da aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta % 1,0 aurreko hilabetearekin alderatuta, urtaro-eraginik gabe. 2020ko bi hilabete horietan metatutako kopuruan, enplegatutako langileen kopuruak % 1,7 egin du gora, 2019ko aldi beraren aldean.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Otsaila. 2020

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	3,2	1,7	1,1
Araba/Álava	0,7	0,7	0,4
Bizkaia	0,3	0,4	0,2
Gipuzkoa	9,3	4,3	3,2
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	4,0	2,1	2,1
Beste produktuak	1,6	0,8	-0,5
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	2,0	1,0	1,7

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62